

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Bigarren Hiruhilekoa 2018

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide

Txosten honek, 2018ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erkundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia


| | |
|---|---|
| Testuinguru Ekonomikoa | 4 |
| Lanbiden erregistratutako langabezia | 5 |
| Afiliazioa Gizarte Segurantzaren | 6 |
| Kontratutako pertsonak eta kontratuak..... | 7 |
| Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)..... | 8 |

Testuinguru Ekonomikoa

2018ko bigarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,8ko hazkundera izan du; 2018 urte osoari dagokionez ere hazkunde bera aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2018ko bigarren hiruhilekoan EA-Eko BPGak urte arteko %2,8ko hazkundera izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Erregistratutako tasa aurreko hiruhilekoan baino 3 hamarren baxuagoa izan da.

Moteltze hori aurreikusita zegoen Eusko Jaurlaritzaren taula makroekonomikoan, baina apaltzea espero zena baino zertxobait biziagoa izan da. Hain zuzen ere, aurreikuspenak %2,9an kokatu zuen bigarren hiruhilekoaren gehikuntza. Hala eta guztiz ere, EAeko ekonomiaren aldakuntza tasa oraindik bizia da. Hiruhileko arteko terminoetan, bigarren hiruhilekoak %0,6ko tasa jaso zuen, lehenengoak baino bi hamarren gutxiago.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko iraila" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, moteltze arina gautatu da urteko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Urte arteko bariazioa %2,2koa izan da, aurreko urteko laugarren hiruhilekoan lortutakoa baino (%2,8) sei hamarren baxuagoa. Izan ere, aurreko urteko azken hiruhilekoan lortutako tasa izan da azken bost urteetan lortutako tasarik altuena.

Espainiar ekonomiak erritmo onean hazten jarraitu du, baina lehen aldiz azken urteetan %3,0 baino gutxiago hazi da. Kontsumo pribatuaren bultzada txikiagoa inbertsio handiagoak konpentsatu du, bereziki makinerian eginikoak. Horri esker, barne eskariak 2,9 puntu ekarri dizkio hazkunderari. Kanpo arloak, berriz, bi hamarren kendu dizkio jarduerari. Beraz, BPGa %2,7 hazi da.

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspenak %2,2 eta %1,8koak dira 2018 eta 2019 urteerako, hurrenez hurren. Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspenak apur bat altuagoak dira: %2,8 2018 urterako eta %2,2 2019 urterako.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak hurrengo hazkundeak aurreikusten ditu: %2,8ko tasa 2018 urterako eta %2,3ko tasa 2019 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko iraila" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %5,3ko jaitsiera izan du urteko bigarren hiruhilekoan; -3.954 langabe gutxiago gizonezkoen artean eta -2.725 emakumezkoen artean.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2018ko bigarren hiruhilekoan (6.679 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 120.485 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %5,3koa izan da eta urte arteko jaitsiera %8,2koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, Lanbiden erregistratutako gizonezko langabetu kopurua murriztu egin da (-3.954), kopurua guztira 51.136 izanik. Emakumezkoen kasuen, erregistratutako langabetuen kopurua 2.725 pertsonatan jaitsi da, kopurua guztira 69.349an kokatuz.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren murrizketa handiena 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (2.295 langabetu gutxiago); ondoren, 25-34 urte bitarteko artean (-2.082), 45-54 adin tartean (-1.398), 55-64 adin tartean (-524) eta 16-24 adin tartean (-380).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen lurraldea (-%5,9; -1.970). Ondoren, Bizkaia (-%5,4; -3.965) eta Araba (-%3,6; -744).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu kopuruaren jaitsiera %5,9koa izan da atzerritarren artean eta %5,1ekoa bertakoen artean. Lehengo kasuan langabetu kopurua 19.275 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 101.201 pertsonatan.


Ikasketak-mailaren arabera, langabezia murrizketa handiena izan dutenak Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak izan dira (hiruhileko arteko -%6,5); ondoren, Batxilergoko ikasketak dituztenak (-5,5%), Derrigorrezko ikasketak dituztenak (-5,3%) eta Unibertsitate ikasketak dituztenak (-3,1%).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan langabezia murrizketa handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza (-819); (ii) Enpleguarekin zerikusia duten jarduerak (-687); eta (iii) Elikadura eta edarien zerbitzuak (-673). Bestalde, azpimarratu beharra dago Hezkuntza sektoreak langabetu kopuruan izandako igoera (+315). Hurrengo sektoreak ere, neurri txikiagoan, igoera izan dute, beste batzuen artean: (i) Programazioa, aholkularitza eta bestelako informazioaren teknologia (+33) eta (ii) Telekomunikazioak (+14).

Afiliazioa Gizarte Segurantzari


Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruak 950.000 pertsona gainditu ditu, %1,1eko igoe-rarekin aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

EAEn 2018ko bigarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruak 950.000 pertsona gainditu ditu: aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %2,2 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50). Gipuzkoan, %33koa izan da eta Araban %17koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian gertatu da afiliatu kopuruaren igoerarik handiena (+3.975); ondoren Gipuzkoan (+3.660) eta Araban (+2.638).


Jarduera Ekonomikoari dagokionez, bigarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (%9,0); (ii) Hezkuntza (%7,0); (iii) Osasun jarduerak (%6,3); (iv) Elikadura eta edarien zerbitzuak (%5,8) eta (v) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzari (%5,0). Hala ere, bigarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu gehien galdu dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (-5.168); (ii) Elikadura eta edarien zerbitzuak (-5.038) eta (iii) Etxeko jarduerak, etxeko langile gisa (-3.093). Afiliatu gehien irabazi dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+2.597); (ii) Osasun jarduerak (+2.447) eta (iii) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (+1.711).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %6,3an igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 62.335koa izanik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6,5ekoa da eta afiliatu autoktonoena %93,5ekoa. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa emakumezkoena baino gehiago hazi da (+%7,5 eta +%4,8 hurrenez hurren). Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioak Araban %12,5eko igoera izan du; ondoren Gipuzkoa (+%5,9) eta Bizkaia (+%4,3).

Kontratutako pertsonak eta kontratuak

Bigarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %14,3 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 264.186koa izan da

2018ko bigarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 129.641koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %14,3 gehiago. Igoera handiagoa izan da gizonezkoen artean (+%17,8), emakumezkoen artean baino (+%10,7).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa


Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %44,4k Derrigorrezko ikasketak ditu, %21,5ek Batxilergo ikasketak, %18,1ek Lanbide Heziketako ikasketak eta %15,4k Unibertsitate ikasketak.

Adinari dagokionez, 2018ko bigarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 35-44 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %25,8ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiak izan dute igoera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldea nabarmenduz (+%42).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %86,3 bertakoa da eta %13,7k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gehiago). Atzeritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%37,2), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%26,4) eta Afrika iparraldekoak (%15,7).

Bigarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 264.186 kontratu erregistratu dira (kontratutako

pertsonak baino 2 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen igoera %17,7koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %9,2a kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gehiago) eta %90,8a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %39,3a kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Araba izan da igoera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%21,5). Ondoren, Gipuzkoa (+%17,3) eta Bizkaia (+%16,5). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%51,3; 135.606); jarraian, Gipuzkoa (%29,4; 77.791) eta Araba (%19,2; 50.789).

Jarduera Ekonomikoei dagokionez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%17,1); (ii) manufaktura industria (%15,6); (iii) administrazio jarduerak (%11,9); (iv) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%10,9); eta (v) merkataritza (%10,9). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%23,9) eta emakumezkoen artean ostalaritza (%21,6).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %10,1ekoa izan da eta enplegu tasa %68,3koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %68,3koa izan da 16-24 urte bitarteko pertsonen artean (%72,0 gizonezkoen kasuan eta %64,7 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 940.300ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %2,6 altuagoa. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 493.500ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,7 gehiago) eta 446.800ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %3,5 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%83,1) 278.800 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%21,2) 35.500 okupaturekin. Bigarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 55-64 urte bitartekoa izan da, 10.000 okupatu gehiagorekin (+%6,1).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da enplegu tasarik handiena (%69,8), jarraian Araban (%69,8) eta Bizkaian (%67,0). Joerarik onena izan duen lurraldea, ostera, Araba izan da %4,2ko igoerarekin okupatu kopuruari dagokionez.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%71,5). Ondoren, Industria sektorea (%22,0), Eraikuntza sektorea (%5,3) eta Lehen sektorea (%1,2).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %67,9k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %32,1ek aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,3 jaitsi da eta aldi baterako kontratuen kopurua %9,1 hazi da. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %82,0 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,9 puntu gutxiago) eta %18,0 lanaldi partzialekoak.

Bigarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %10,1ekoa izan da (%9,5 gizonezkoen artean eta %10,9 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 106.100

pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %8,9 gutxiago. Emakumezkoen kasuan, beherakada 7.400 pertsonakoa izan da, eta gizonezkoen kasuan, ostera, 3.200 pertsonakoa.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik txikiena 45-54 urte bitarteko taldeari dagokio (%8,4) eta langabezia tasarik altuena, ostera, 16-24 urte bitarteko taldeari (%20,8). Eboluziorik onena izan duen taldea 35-44 urte bitartekoa izan da, 4.200 langabetu gutxiagorekin (-%12,4).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik txikiena (%7,7), jarraian Araba (%10,6) eta Bizkaia (%11,6). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren eboluziorik onena Araban izan da, %11,5eko jaitsierarekin. Eboluziorik txarrena Bizkaian izan da, %7,3ko jaitsierarekin.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %42,0k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %58,0k urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino bi puntu gutxiago).

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %43k derrigorrezko ikasketak ditu eta %31k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan beherapena izan duen talde bakarrak unibertsitate ikasketak dituztenak (-4.235) eta batxilergo ikasketak dituztenak (-3.337) izan dira.

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %81 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatearen duten langabetu atzerritarrak (%19) eta Europar Batasunekoak (<%1).